

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

2022ko aurrekontuaren hasierako onarpena

Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak, 2021eko abenduaren 15ean egindako ohiko bilkuran, 2022ko aurrekontu orokorra behin-behineko izaerarekin onartu du. Beraz, orain, jendaurrean erakusgai jartzen da, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuak arautzen dituenaren 15.1 artikulua xedatutakoa betetzeko. Honako baldintza hauen arabera jarri da jendaurrean:

a) *Agiria erakusgai dagoen lekua:* Urola Kostako Udal Elkarteko Idazkaritza Kontu-hartzailetza.

b) *Agiriak aurkeztu eta erreklamazioak aurkezteko epea:* Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita, bulego ordutegian.

c) *Erreklamazioa aurkezteko gai direnak:* aipatutako Foru Arauaren 17.1 artikuluko zerrendan agertzen direnak eta erabakiaren aurkako botoa eman dutenak.

d) *Erreklamazioak aurkezteko zioak:* aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluko zioak.

e) *Erreklamazioak aurkezteko lekua:* Urola Kostako Udal Elkarteko Herrerako Erregistroan, www.urolakosta.eus helbidean dagoen egoitza elektronikoan. Halaber, Herri-administrazioen administrazio-prozedura ekidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan.

f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Batzar Nagusia.

Jendeari erakusteko epea amaitzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, 2022ko aurrekontu orokorra behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu gabe.

Zarautz, 2021eko abenduaren 16a.—Lourdes Salsamendi Goñi, lehendakaria. (8058)

MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA

Aprobación inicial del presupuesto del ejercicio 2022

Aprobado inicialmente por la Asamblea General, en Sesión Ordinaria celebrada el día 15 de diciembre de 2021, el Presupuesto General para el ejercicio 2022, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 15.1 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales, se expone a información pública, conforme a las siguientes reglas:

a) *Lugar donde se encuentra:* En dependencias de la Secretaría-Intervención.

b) *Plazo para examinarlo y en su caso para presentar reclamaciones:* Quince días hábiles, contados a partir del siguiente también hábil, de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

c) *Quiénes pueden formular reclamaciones:* Los interesados que relaciona el artículo 17.1 de la Norma Foral antes mencionada, además de los que votaron en contra del Acuerdo.

d) *Motivos de impugnación:* Los señalados en el artículo 17.2 de la Norma Foral antes citada.

e) *Oficina de Presentación:* Registro de la Mancomunidad Urola Kosta, electrónicamente a través de la sede electrónica disponible en www.urolakosta.eus. Asimismo, en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

f) *Órgano ante el que se reclama:* Asamblea General de la Mancomunidad Urola Kosta.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, se tendrá por aprobado definitivamente el Presupuesto General de 2022, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Zarautz, a 16 de diciembre de 2021.—La presidenta, Lourdes Salsamendi Goñi. (8058)